

GURE EUROPA

Gure Europa au Asia'ren zati bat dala dirudi.

Oso-osorik dago lurraren epel-aldian, lurralde ezoa ta basamortu-bakoa da eta irutatik bi lau-aldiak dira.

Garia, lekak, barazkiak, frutak eta lorak ugari emoten dauz.

Mendiak ba-dagoz, baiña zarrak eta erpin biribildunak, Alpeetako Mont Blanc, 4807 m.'koa da aundiena.

Orregaitik mendi-egaletan basoak eta soloak ugari dagoz. Ba-dagoz Alpeetan, orregaitiño, betiko edurrak eta lei-tokiak eta, ondoren lez, ibai zabalak, esaterako Rodano, Rin eta Danubio. Orreitan sortzen da "ikatz zuria" deritxon tximist-indarra..

Ibai orreik bide egokiak dira ekarri bear diran eroskiak ekarteko, esaterako ikatza, arorioa... Baiña neguan iparraldeko ibaiak izoztu egiten dira Finlandia'n, Suezia'n, Noruega'n eta Errusian.

Europa'k biztanle asko dauz: landak jente gitxi dauke baiña uriak, langintzari eskerrak, milloika biztanlekoak dira.

Zurien lurraldea dogu Europa, baiña millaka datoz Asia'tik eta Afrika'tik. Geroago ta geiago.

25 laterri dira Europa-barruan eta Errusia erdiz-erdi da Europa ta Asia.

Geroago ta biziagoa da Europa'tarren alkartasun-egaria, eta onek beronen frutuak emoten diardu, oraintxe Europa'ko Laterri-Lege Nagusia onartzen diarduela. Ameriketako Laterri Batuen antzeko zerbait sortu nai

dabe, batez be salerosketarako mundu osoko azokan indarra eukiteko, norgeiangoan irabazteko.

Euskalerriak beti izan dau Europa orretara sartzeko gogoia, Jose Antonio Agirre bera asita, baiña España'tik aske izatea lortu-ondoren. Ba- dauka Euskalerriak Europa'ra zer eroan, batez be erri bakotzak zaindu bear dauan nortasuna zaintzea. Olako erri asko dagoz Europa'n, eundak, motel bizi diranak Eta nortasuna galtzen dauan erriak ez dau fruturik emoten gizartean, Ego-Ameriketan agiri dan lez.

Laterrien Europa barik aberrien Europa nai geunke. Gaurkoz laterriak agertzen dira nagusi eta orregaitik euskaldunok ezetza emongo dautsagu Euroopa'ren Laterri-Lege Nagusi orreri.

Europa'ko bereizitasunen artean oneik gogoratuko doguz, langintza edo industrietatik aparte: Iparraldeko baserrietan aberegintza, Suezia'ko ur-jauziak, Olanda'ko lorategiak itxasoa baiño berragoko maillan, ardau-tokiak Errioxa'n, Bordele'n, Baldepeñas'en, Xerez'en..., Kortxo'lekuak España ta Portugale'ko egoaldean, Italia'ko Apenino-inguruetan be ardau-leku onak, orio-landarak ugari Lurrarte itxas-inguruan, iparraldean baso baltzak dira irabazpide, tabakoa be ba-dago Errumania'n, eta garia leku askotan. Arraintza da irabazpide ona itxas-ondoko errialdeetan.

OLAZAR'tar Martin'ek

ARABIARRAK ETA BEREBERAK

Arabiarrak aize-bolada baten antzera igaro ziran Ipar-Afrika'tik eta España-Frantze'tik igaro eta Poitiers'eraíño eldu ziran.

Arabiarrak Afrika'ra etorri ziranean bereberak, enda zarra, bizi ziran an eta oneik eta an aurkitzen ziran kristiñauen eleizbarruti asko be musuman biurtu ebezan.

Jakintza aurreratua zabaldu eben arabiarrak Kordoba'tik Ipar-Afrika'ra eta jauregi ta mezkita eder asko egin ebezan.

1330 m. urtean beste nomada edo ibiltari batzuk, arabiarrak oneik be, etorri ziran eta euren menpean artu eben Ipar-Afrika eta bereberak itxas-ertzera bultzatu ebezan. Lengo nekazari eta artzaiñak itxas-gizon trebe biurtu ziran.

Almoadeak eta almorabideak etorri ziran gero. Eta urrengo "Milla ta bat gauak" liburuko erregeak.

Iru zatitan geratu zan Ipar-Afrika: Tunez, Aljer eta Marrakiz.

Marrakiz'en gariak jarraitzen dau. Tunizia ta Aljeria'n itxas-lapurak ziran nagusi. Or izan zan Mungia'ko Matxin'en eta Bizar-Gorri'ren arteko burrukea eta Matxin'en martiritza, Andrea Doriak iges egin-ondoren.

Olazar'tar Martin'ek